

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea 2/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari

Honen bidez adierazten da 2/2020 kreditu gehigarriaren espedientea jendaurrean jartzeko izapidea egin eta haren aurka erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi dela eta argitaratu egiten dela ondoren adierazten den moduan, halaxe agintzen baitu Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuaren otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1 eta 34.3 artikuluetan.

#### Kreditu gehigarriak

PARTIDA	GASTUAREN IDENTIFIKAZIOA	ZENBATEKOA (EURO)
920.22799	Enpresak zerbitzuka	12.060,22
<b>GUZTIRA</b>		<b>12.060,22</b>

#### Finantzaketa

AZPIKONTZEPTUA	IZENA	ZENBATEKO GEHIGARRIA (EUROAK)
870.01	Diruzaintzako gerakina gastu orokorretarako	12.060,22
<b>FINANTZAKETA, GUZTIRA</b>		<b>12.060,22</b>

2/2020 kreditu gehigarriaren espedientearen behin betiko onespenean administrazio bidea agortzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua soilik aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian. Horretarako, 2 hilabeteko epea egongo da, iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Zambrana, 2021eko otsailaren 2a

*Alkate-lehendakaria*

*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI*